

MIKEL ZALBIDE

Deskribapena: Kike, Mikel Zalbiderekin kalean elkarrizketan ageri da.

Kike: “Zein izan da hiztunen bilakaera azken berrogeita hamar urte hauetan, euskal hiztunen bilakaera?”

Mikel: “Azkeneko berrogeita hamar urteak kontuan hartzen badira, garai bateko euskaldun elebakarrak galdu egin dira. Gaur, hiru-lau urtetik gorako inor ez dago erderaz ez dakienik gutxi-asko. Horrezaz gainera, esan behar da, euskal elebidunak, euskeraz erderaz bezain ondo edo hobeto manejatzen direnak, ahoz batez ere, horiek multzo inportantea direla, besteren artean, garai bateko euskal elebidun horiek, euskeraz hobeto manejatzen zirenak, hitzez manejatzen zian hobeto, baina irakurtzen eta idazten ez zekiten, normalean. Gaur, euskeraz alfabetaturiko jende multzo zabala da gure artean, inoiz izan den zabalena seguru. Eta gero gertatu da, beste faktore garrantzitsua da erdal elebidunak, asko ugaritu direla. Hobeto moldatzen dira erderaz euskeraz baino, batez ere ahoz, hitzez baina euskeraz badakite. Klaro, jakite horretan, errezago dakite entzuten eta irakurtzen, hitz egiten eta idazten baino. Gehiago dira beraz, jasotzaile, sortzaile baino. Baina izatez, badira nolabaiteko elementuk.”

Kike: “Eta zer nolakoa da eskolatik gaur egun ateratzen diren ikasleen euskera maila?”

Mikel: “Errezena badakizu zer litzakeen esatea: “de todo un poco”. Zergatik? Faktore askok eragiten dutelako gazte bat eskolan ibili eta hamasei bat urtera iristen denean, bere euskera maila hau izan, hori izan, hura izan ala bestea izan. Faktore horietan, nik bost elementu hartu izan ditut kontuan, seigarren bat ere hartu liteke, jakina, euskaltzaletasuna baina ez dut uste horrek hainbateko eraginik duenik.”

Kike: “Ez, e?”

Mikel: “Faktore nagusiak bost hauek dira: bat, pertsona batek, kasu hontan gazte batek, hizkuntza bat etxean ikasi duena edo kalean edo soil-soilik eskola bidez transmititu zaion hizkuntza hori osatzeko, garatzeko, lantzeko eta maila hobera eramateko duen berezko gaitasuna. Pertsona guztiek ez dute gaitasun bera hizkuntza lantzeko, are gehiago bigarren hizkuntza denean, elebi denean. Bigarren faktorea zein da? Etxea. Erabat euskeraz egiten baldin bada nahiz eta kalean erderaz egin eta nahiz eta A eredura joan, etxean euskeraz egiten baldin bada, horrek ez du euskera galduko. Bien, horrekin batera, hirugarren faktore bat dago, kaleko hizkera nagusia. Kalean, herri txiki batean, euskal arnas-gune batean euskeraz egiten bada, neska edo mutil horrek, baditugu adibideak, euskeraz ikasten du zoragarri! Kaleak pisua du eta kalearekin batera lagunarteak. Gerta liteke kalea erdalduna izatea baina gazteen arteko euskal harreman sareak osatu eta hedatu dira beraiek beren artean euskeraz egiten dute, hori hementxe bertan gertatzen da: ni inoiz entzuten belarria jarrita ibiltzen naiz eta ikusten dituzu gazte batzuk danak erderaz ari dira eta beste batzuk beren artean guztia euskeraz ari dira. Lagunarteak ere pisua du eta gero bosgarren faktorea, neurri batean gehiegi magnifikatu izan duguna, eskola bera da. Ez da berdin, noski, haur guztiak A ereduan ibili, edo B ereduan ibili edo D ereduan ibili, hor ere, gradazio handia dago eta D ereduok hobeto dakite B-koek baino eta B-koek A-koek baino oro har baina hori bost

faktoreetariko bat da, hori ez da faktore bakarra eta orduan, zer gertatzen da? Segun bost faktore horiek ikasle bakoitzaren kasuan nola konbinatzen diren...”

Kike: “Era batekoa edo bestekoa aterako da...”

Mikel: “Erabateko abanikoa ateratzen dela.”